

PSOEk bahitu gaitu

Deia, 1983-06-08.

Orain dela hilabete batzuk, oraindik erbestean dagoen ezkertiar eta españolista den herritar batek esan zidan zerbait datorkit burura egun horietan:

"Ah, bai noski; sozialistek gaur badira oraindik militarrek arbitro eta epaile diren Espainian, sozialismoarekin aurrera irtengo badira, moderazio handiz jokatu beharko lukete; ez al da frankismoko UCD-ren azpian jarraitzea baino demokraziako PSOEren bide erdiko politika moldagarri eta azkar batetik bideratzea hobe...?!".

Ba zuen hark nik ongi ulertu nion puntua.

Arrazoizkoa zen gaur Espainia dagoen egoeran demokraziaren bideak irekitzen joateko nahikeriatik ihardun beharrean ahal den bidea hartzea. Egunero neurri bateko amore emateetara behartua eta ohitua dago gizona eta politikan areago! Hau egia da. Baina hemen ere neurria da diskutigarri, ordea: zenbaterainoko amore ematea da zilegi?

Amore emateak badu interpretaziorako eremurik! Zerekin ematen diozu amore: zeure barru-barruko den zerbaitekin edo zeurea izan beharrean beste norbaitena denarekin?

Kasu! hemen bakoitzak berea duena jarri beza jokoan.

Ikus dezagun zer arlotan ari den PSOEren Gobernua amore ematen: ez da langileriaren eskabideak ezagutzeko kinketan portatu, eta egia da nolabait uztartu duen UGTri kalteak egin dizkiola; hara, ba hemen berea den zerbait arriskatu du. Hemendik kanpo, berea duen gutxi jarri du jokoan. Bestenetik bai, ordea! Orokorrean, *unibertsitateko* arloan zenbait puntu defendatu baditu, Monreal jaunak ongi erakutsi duen bezala gure estatutuan gai hontaz gureak bezala aipatzen direnak *bere kasa irakurri eta erabaki ditu*, euskal unibertsitateko kaltetan, zeren irakaskuntza nagusiari dagokion eremuan, Euskal Gobernuarenak ziren konpetentziak edonola, indarkeriaz, Madrilekoaren eskuetan geratu baitira!. *Gizaemakumeen eskubideak*, bestalde, Frankopeko Fragaren neurri berekin ari da Barrionuevo, lan itsu-beltz iraingarrian saiatzen. Guk Jaurlaritzarik eta Ertzantzarik ez bagenu bezala, ehundaka polizia berri herrietan sartu dizkigu indarkeriaz, txibatoen olatu batez ere mehatxatu gaitu, eta errudunen baten bila gazteak nolanahi, itsuan, atxilotzen hasia da. Bestalde, une honetan indarkeri armatu guztiak salatzen ari den gure herri honen politika bideak, estatutokoak, LOAPA bidez itxi eta moztu nahiez dabilta PSOE eta UCD batera.

Hauxe da PSOE gure herrian egiten ari dena.

Eta hasierako erreflexiora itzul nadin ondorioa ateratzeko: Sozialistek Espainian sozialismo espainola aurrera ateratzeko behar duten *moderazioa*, Euskal Herriaren eskubide politiko soilak direnen bizkar joatea nahi dute! Bereak dituztenetik kontenta eta ordaindu ditzatela armadakoek ezarri dizkieten hipotekak, eta ez gure herria errazki, errazagi!, bahituaz.

Gure herriaren gehiengoa *edozein* bahiketaren aurka dago eta bereziki, noski, *bahiketaren* *sujetoa Euskal Herria bera bada!*